

Jarduerak

Funtzeko jarduerak, dakizuenez, hauek dira:

- Ekoizpena
- Arazoak konpontzea
- Plataformako edo sareko jarduerak

Gure enpresan hirurak hartu ditugu kontuan, baina garrantzitsuena ekoizpena da. Gure ustez, garrantzitsuena da kalitatezko produktuak egitea eta gero beste gauza guztiak. Lehenago azaldu dugunez, kalitatezko produktu batekin ez da behar publizitate handiegi egin behar. Hasieran, ahoz ahoko publizitatea egingo dugu Barakaldoko biztanleen artean, hau da, etxez etxez egingo dugu.



EGANERIn egiten duguna hau da:

- Hasteko, motorra eta orgarako beharrezkoak diren materialak kalitate handiko enpresa bati erosten dizkiegu. Produktu hauek motorra eta orgaren oinarria dira. Enpresa hau “5.0” da eta bakarrik kalitatezko produktuak egiten dizkigu. Beste aldetik, beste enpresa batekin lan egiten dugu diseinu pertsonalizatuak egiteko. Guk diseinuak egiten ditugu eta enpresa honek orgaren oihala egiten digu. Enpresa honen izena “Mariaren oihalak” da eta hainbat motatako oihal motak egiten ditu gure orgak kalitatezkoak izan daitezen, adibidez, gutxi bustitzen den oihala, kotoizko oihala...
- Hau adibide batzuek dira:



- Ondoren, material guztiak ditugunean guk egiten duguna da orga programatzea eta oihala oinarriarekin lotzea orga amaitzeko. Orgak programatzen dituen Eneko da. Eneko egitea erabaki dugu oso ona delako mekanikan eta bere gustuko jarduerak denez pozik egongo da lanean. Orgaren muntaiaz arduratzen dena Julen da. Julen oso ona da Ikeako altzairuak muntatzen zeren eta Ikea dendan lan egin du. Orduan, pentsatu dugu ona izango zela ere orgak muntatzen. Orga bat prest edukitzeko 20 minutu soilik behar ditugu beraz ordu batean 3 egiten ditugu. Badakigu ez dela oso prozesu azkarra baina nahiago dugu kalitatezko produktuak egitea kantitate handia eta produktu txarrak egitea ordea.

-



-

-

- Amaitzeko, beste produktuak egiten dituen Renato da. Renato egitea erabaki dugu oso pertsona xehekari eta perfektionista delako eta produktu hauek txikiak direnez ondo egingo du. Besteok, urduri jarriko ginateke eta orduan ez ginen pozik egongo lanean. Produktu hauek, orga bezala, guk diseinatzen ditugu baina oinarritzko materialak “5.0” enpresari erosten dizkiegu.

Ekoizpena garrantzitsua izanda ere, arazoak konpontzea eta sareko jarduerak ere hartzen ditugu kontuan.

EGANERI



Arazoak konpontzeko atala eta sareko jarduerak.

Gero, sareko jardueraz antolatzen den pertsona daukagu. Hau gure laguna Unai da eta denda online sortu eta hartaz arduratzen dena da(adibidez, e-mailak irakurri eta erantzun...). Bere laguntza dohainik da praktiketara dagoelako. Bere lana ordenak jasotzea, Enekeri eta Juleni esatea, Naroari esatea (enpresei enkarguak egiteko) eta pertsonaren datuak jasotzea da.

Azkenik, telefonoaz eta denda arruntaz arduratzen diren pertsonak Naroa eta Andrea dira. Naroa aukeratu dugu oso ona delako beste pertsonekin hitz egiten. Naroa bezeroen kezka, iradokizunaz eta eskaeraz okupatzen da. Naroa enpresei eskaerak egiten dizkio, adibidez “5.0” enpresari materialak eskatu.

Andrea diseinuak eta denda arruntaz arduratzen da. Dendan bezeroen kezka eta galderak erantzun, orgak saldu, orgak alokatu... Bezeroak denda ez dauden bitartean Andrea diseinu berriak egiten ditu eta Naroa horiek hartzea eta Mariaren Oihalaren enpresara bidaltzen ditu. Amaitzeko Andrea enpresaren kontabilizazioa egiten du, matematikak ondo ematen zaizkiolako eta gustuko dituelako.

